



JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DIHARDUTEN FUNTZIONARIOENTZAKO GIZARTE-EKINTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

LAGUNTZAK EMATEKO OHAR GARRANTZITSUA

Eman beharreko laguntzak behar bezala kalkulatzeko, ezinbestekoa da EIZUko langileen espedientean honako hauei buruzko datu eguneratuak edukitzea: **egoera zibila** (banantze- edo dibortzio-epaia eta, hala badagokio, hitzarmen arautzailea jasoa) eta **bizikidetzaren unitateko kideak** (ezkontidea edo erregistratutako izateko bikotekidea, edo zaintza eta jagoletza partekatua edo eskusiboa duten seme-alabak).

Horrela bakarrik hartu ahal izango dira kontuan, adibidez, langilea ez diren onuradunak edo laguntzaren kalkulua onuragarriagoa dela justifikatutako gastua langileari dagokionean.

Horregatik, laguntza-eskabidea bete eta aurkeztu aurretik, egiaztatu egin behar da, eta, hala badagokio, espedientea zuzendu EIZUn, eguneratuta egon dadin. Espediente horren datuak hartuko dira kontuan izapideetan.

GIZARTE-EKINTZAKO LAGUNTZEI BURUZKO OHIKO GALDERAK

Zer gastu mota kontuan hartzen dira deialdian?

- Laguntza protesikoa eta odontologikoa.
- Desgaitasuna duten pertsonen arreta emateko laguntza.
- Osasun-sistema publikotik kanpo dauden tratamendu eta interbentzio medikoetarako laguntza.
- Batzorde Teknikoak aintzat hartzen dituen salbuespenezko laguntzak.

Zein urterri dagozkio oraingo deialdiaren sartutako gastuak?

2023. urtean bakarrik benetan egindako gastuak dira, hortz-protesien bidezko tratamendu jarraituaren kasuan izan ezik. Kasu horietan, 2022. eta 2023. ekitaldietan ordaindutako gastuak lagundu ahal izango dira.

Nola justifikatzen da benetan egindako gastua ordaindu izana?

Jatorrizko fakturak aurkeztu beharko dira, ordainagiriarekin batera; hala badagokio, hori fakturan bertan agertu ahal izango da.

Faktura horiek establezimendu espezializatuek egingo dituzte. Horietan IFK/IFZ, data eta sinadura jaso beharko dira, bai eta erositako ondasunaren xehetasuna, izena, abizenak eta eroslearen helbidea ere.

Fakturen ordain izana edozein modutan egiaztatu daiteke (erosketa-tiketa edo "ordaindua" edo "jasoa" aipamena fakturan).

Gastua ordaindu dela justifikatu ezean, ez da gastu hori kontuan hartuko eman beharreko laguntzaren ondorioetarako.

Zein pertsonari egokitu dakioke laguntzaren xede den gastua?

- EAeko Justizia Administrazioaren zerbitzupeko funtzionarioei, bai titularrei, bai bitarteko funtzionarioei (semea, alaba edo senidea zaintzeko eszedentzia-egoera barne), baldin eta jardunean egon badira 2023an, eta, aldi horretan, laguntzaren xede diren gastuak badituzte.

- Ezkontideari eta Izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatutako bikotekideari dagozkionak.

- Seme-alabei, honako salbuespen hauekin:

- 1.- Laguntzen xede den gertaera eragilea gertatu den egunean 25 urte beteta dituztenean, salbu eta erabateko mendekotasuna duten desgaituak badira.
- 2.- Seme-alabak beste familia-unitate batekoak izatea.
- 3.- Likidatzen den ekitaldian, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak diren urteko lan-errentak jasotzea, norberaren kontura zein besteren kontura.

16 eta 25 urte bitarteko seme-alaben gastuen kasuan, eskabidean bertan edo I. Eranskinaren bidez adierazi behar da haiek 2023an jasotako diru-sarreraren zenbatekoa. Diru-sarrerarik izan ezean, beharrezkoa da izen-abizenekin batera "0" kopurua adieraztea.

Nola kalkulatzen da jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa?

Jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa justifikatutako gastuen kopuruaren eta kalte ekonomikoa deritzonaren arteko aldea da.

Kasu bakoitzean ezarritako kalte ekonomikoari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, eskatzailearen edo, hala badagokio, familia-unitatearen 2023ko urteko ordainsari gordinen guztizko zenbatekoari dagokion ehunekoa aplikatuko da. Ehuneko hori zehazteko, honako taula hau aplikatzen da:

- 25.000 eurorainoko ordainsariak: % 3
- 25.001 eurotik 35.000 eurora: % 4
- 35.001 eurotik 45.000 eurora: % 5
- 45.001 eurotik 55.000 eurora: % 6
- 55.001 eurotik 65.000 eurora: % 7
- 65.001 eurotik 75.000 eurora: % 8
- 75.001 eurotik 85.000 eurora: % 9
- 85.001 eurotik 95.000 eurora: % 10
- 95.001 eurotik aurrera: % 11

Kalte hori **%2 gehiago murriztuko da** eskatzailearen ardurapeko seme-alaba bakoitzeko, betiere deialdiko baldintzen arabera baztertuta ez badaude. Horretarako, langileen **espedientea** behar bezala **eguneratuta** eduki beharko da EIZUn.